


**SALTZAILE**  
**BATEN HERIOTZA**  
**ARTHUR MILLER**



Jatorrizko izenburua: Death of a Salesman

Itzultzailea: Xabier Galarreta  
Zuzenketak: X.G., F.J. eta M<sup>a</sup> J.Y.

© Hiria Liburuak, S.L.

ISBN: 84-95421-76-3  
Legezko Gordailua: BU 21-2001

Eszenatokia: ekintza Willy Lomanen etxean eta etxartean gertatzen da, baita Willyk New Yorke eta Bostonen bisitatzen dituen zenbait tokitan ere.

## LEHENENGO EKITALDIA

Xirula-soinua entzuten da, urrutiko eta fina. Soinu honek badirudi belarraz, zuhaitzez edota zeruertzeaz hitz egiten digula. Gortinak igotzen dira.

Gure aurrean SALTZAILEaren etxea dago. Etxeari itzal angeluar erraldoiak inguratzen zaizkio alde guztietatik, atzealdetik batez ere. Etxe eta aurrealde gainean argi urdina baino ez dago. Inguruak laranjazko argi batek argizatzen ditu, apur bat mehatxukorra bailitzan... Argia biziagotu ahala, itxuraz hauskor eta aldi berean txikia den etxe inguruan, eraikin sendo bat ikus daiteke. Hamaika apartamentuz osaturik dago. Toki osoak ametsetakoa ematen du. Errealitatek kanpo dagoen ametsa. Sukaldea berriz, benetakoa dela dirudi: mahai bat, hiru aulki, eta hozkailua. Beste altzaririk ez da ikusten. Sukaldearen atzealdean, kolore askotako zintaz hornituriko sarrera dago. Sarrera honek egongelara darama. Sukaldetik eskubitara, metro erdi bat gorago, letoizko ohe-egitura eta aulkitxo batez apainduriko logela, besterik ez. Ohe gaineko apalategian, zilarrezko trofeo atletiko bat. Leihoa apartamentueta-rantz agertzen da.

Sukaldearen atzean, metro bat gorago, mutilen gela dago. Oraingo ez da oso ongi ikusten. Ozta-ozta nabarmentzen dira bi oheak. Egongela ikustezinaren gainean dagoen gela honen atzean, teilategala ikus daiteke. Ezker aldetik, sukaldetik gorantz, eskailera bat.

Eszenatokia —zenbait aldetan behintzat— nahiko garbi dago. Etxeko teilatuaren hegala dimentsio bakarrekkoa da; honen

atzetik eta gainetik, apartamentuak daude. Etxe aurrean, hau da, aurrealdetik orkestraraino, ez dago ezer. Hutsarte honek atzeko patio gisa balio du. Willyren fantasiak eta hiriko eszenak ere bertan egin daitezke. Ekintza orainaldian gertatzen bada, aktore guztiek irudizko hormetako lerroak errespetatuko dituzte; iraganaldiko eszenetan ordea, muga hauek ez dira existituko, hau da, pertsonaiak gela batean sartu-aterako dira gezurrezko horma batetik pasatuko balira bezela.

(Eskubitatik WILLY LOMAN, Saltzailea alegia, sartu da. Bi maleta handi dauzka eskuetan. Xirulak jotzen jarraitzen du. Berak ere entzuten du xirula-soinua, baina ez dio arreta handirik jartzen. Etxerantz doa. Eszenatokia zeharkatzen ari denean, nekea nabari zaio. Hirurogei urte ondo beteta dauzka. Zuhur jantzen du. Etxeko atea ireki, sukaldean sartu eta —zizpuru bat botaz— zama lurrean utzi du. Ahurretan mina du. Hitz kexakor batzuk eskapatzen zaizkio —Ai, ene! Ai, ene!—. Atea itxi eta gero, maletak egongelara daramatza. Sukaldeko atetik —zinta koloredunak dituen atetik hain zuzen— sartu da. LINDA, bere emaztea, ohearen eskuinean etzanda dago. Ohetik jaiki eta soineko bat jantzi du. Zain dago. Gehienetan alai den emakume honek WILLYren jokabidearekiko burdinezko errepresioa garatu du —hura maitatu baino, miretsi egiten du—. WILLYren aldarteak, jegin txarra, ameskeriak eta krudelkeria txikiak ahaztuak ditu, WILLYren desio zurrumbilotsuen oroitzapen garratzak baino ez dira-eta. Gainera, LINDAk ere desio berberak erdibanatzen ditu WILLYrekin; baina LINDAk ez dauka desio horiek barrutik ateratzeko eta azken mugaraino eramateko kemenik).

LINDA (logelatik entzun dio eta apur bat asaldatuta dei egiten dio):  
Willy!

WILLY: Egon lasai. Itzuli egin naiz.

LINDA: Zergatik? Zer gertatu da? (Isilunea) Zerbait gertatu al da, Willy?

WILLY: Ez, ez da ezer gertatu.

WILLY (haserre eta axolagabe): Ez dela ezer gertatu esan dizut. Ez duzu entzun ala?

LINDA: Ondo al zaude?

WILLY: Lur jota nago. (Xirula-soinua poliki-poliki desagertuz doa. Bere emaztearen ondoan eseri da, zaputz.) Ez nintzen gauza. Ez nintzen gauza. Benetan, Linda. Oso garbi dago.

LINDA (arreta handiz, samur): Non egon zara egun osoan? Bai itxura txarra duzula.

WILLY: Yonkers hiritik apur bat haruntzago joan naiz. Kafe bat hartzeko gelditu naiz. Agian, kafeagatik izango zen.

LINDA: Zer?

WILLY (isilune baten ondoren): Bat-batean, ez nintzen kotxea gidatzeko gauza. Kotxeak bide-bazterrera jotzen zuen behin eta berriro. Benetan.

LINDA (lasai): Baliteke direkzioagatik izatea. Ez dut uste Angelok Studebakerra ondo ezagutzen duenik.

WILLY: Ez. Neu naiz. Neu naiz. Bat-batean, hirurogei kilometro orduko abiaduraz nindoala konturatu naiz. Eta ezin nituen azkeneko bost minutuak gogoratu. Nola ez dut horretan pentsatuko ba...?

LINDA: Agian, zure betaurrekoen erruz izan da. Oraindik ez zara joan bista aztertzeraz.

WILLY: Ez, primeran ikusten dut. Hamabost kilometro orduko abiadan itzuli naiz. Ia lau orduz egon naiz bidean, Yonkerstik.

LINDA (etsita): Beno, atsedeen hartu behar duzu, Willy. Horrela ezin duzu jarraitu.

WILLY: Duela gutxi Floridan izan ginen oporretan.

LINDA: Bai, baina zure buruak ez du atsedeen hartu. Zure buruak lan gehiegi egiten du. Eta burua da gauzarik inportanteena, maitea.

WILLY: Bihar lanari ekingo diot. Agian hobeto egongo naiz bihar goizean. (Zapatak erantzten ari da.) Zapata madarikatu hauek lur jota naukate.

LINDA: Hartu aspirina bat. Ekarriko al dizut? Horrek lasaituko zaitu.

WILLY (miretsita): Gidatzen ari nintzen. Ulertzen? Eta ederki nengoen. Paisaiaz gozatuz nindoan. Pentsa: ni paisaiari begira, bizitza osoa errepidean pasatu eta gero! Baina hain ederra zen han goian egotea, Linda. Zuhaitzak hain zarratu zeuden, eta eguzkia hain atsegina zen... Kapota jaitsi dut eta piskanaka haize beroan murgildu naiz. Orduan, bat-batean konturatu naiz errepidetik ateratzen ari nintzela! Horrelaxe da, bai. Zeharo ahaztu zait gidatzen ari nintzela. Lerro zuria zeharkatu izan banu, norbait hilko nuen. Tira, aurrera jarraitu dut eta... bost minutu geroago berriro ametsetan nengoen! (Begiak igurzten ditu). Eta jakingo bazenu zer-nolako pentsamendu arraroak pasatzen zitzaizkidan burutik...

LINDA: Willy, maitea. Hitz egin beraiekin. Ez dakit zer dela-eta ezin duzun New Yorken lan egin.

WILLY: New Yorken ez dute nire beharrik. Ingalaterra Berriko saltzailea naiz. Behar-beharrezkoa naiz Ingalaterra Berrian.

LINDA: Baina hirurogei urte dituzu! Ezin duzu astean bidaia bat egin. Inork ez dizu horrelakorik eskatuko!

WILLY: Telegrama bat bidali behar dut Portlandera. Bihar Brownekin eta Morrisonekin egon behar dut goizeko hamarretan. Salgaiak erakutsi behar dizkiet-eta. Jainkoarren! Zerbait salduko banie... (Jaka jantzi nahi du.)

LINDA (jaka eskuetatik kenduz): Zergatik ez zoaz bihar bertan bulegora eta Howardi esan New Yorken lan egin behar duzula? Egonarri handiegikoa zara, maitea.

WILLY: Wagner zaharra biziko balitz, nik orain New Yorkeko ardura izango nuke! Gizon hura printzea zen. Gizon menperaezina izan zen. Baina bere semea, Howard delako hori, erabat esker

txarrekoa da. Lehenengo aldiz iparraldera joan nintzenean, Wagner Konpainiak ez zekien ezta Ingalaterra Berria non zegoen ere!

LINDA: Zergatik ez dizkiozu esaten horrelako gauzak Howardi?

WILLY (haserre): Esan egingo diot. Ez izan dudarik. Esan egingo diot. Gaztarik ba al dago?

LINDA: Sandwich bat prestatuko dizut.

WILLY: Ez, zoaz ohera. Esne piska bat edango dut. Berehala igoko naiz. Mutilak etxean al daude?

LINDA: Lotan daude. Gaur gauean, Happik berarekin eraman du Biff jai batera.

WILLY (adi-adi): Benetan?

LINDA: Hain atsegina izan da biak bizarra elkarrekin kentzen ikustea, bata bestearen atzean, hor, bainugelan... Eta segituan elkarrekin ateratzen... Konturatu al zara? Bizarra kentzeko lozio usaina dago etxe osoan.

WILLY: Begira gauzak nolakoak diren. Etxea ordainduta uzteko, lan egizu bizitza osoan. Azkenean lortzen duzu, eta bertan ez dago bizitzeko inor.

LINDA: Beno, maitea. Horrelakoxea da bizitza.

WILLY: Ez, ez. Batzuek... batzuek zerbait lortzen dute. Gaur goizean ni atera eta gero, Biffek esan al du zerbait?

LINDA: Ez zenuke berataz gaizki esaka ibili beharko, Willy. Iritsi berria da-eta. Ez duzu zure senetik atera behar.

WILLY: Noiz arraio atera naiz ni neure senetik? Ea dirurik irabazten ari den, besterik ez diot galdetu. Hori «gaizki esaka» aritzea dela iruditzen al zaizu?

LINDA: Baina, maitea, oraindik ezinezkoa zaio dirua irabaztea.

WILLY (kezkatuta eta haserre): Zerbait ilun dago bere baitan. Umore aldakorreko gizon bihurtu da. Gaur goizean ni atera ondoren, bere burua zuritu al du?

LINDA: Kemenik gabe nabari zaio, Willy. Badakizu nola miresten



zaituen. Berak bere burua aurkitzen duenean, orduan zuek biak hobeto konponduko zarete elkarrekin. Hala uste dut nik behintzat. Orduan, beti borrokan aritzeari utziko diozue-eta.

WILLY: Baserri batean nola aurkituko du bere burua? Hori al da bizimodua? Morroi lan egitea? Hasieran, gaztea zenean, nik pentsatzen nuen «Beno, gaztea da, ondo etorriko zaio mundua piska bat ezagutzea, hainbat lanetan ihardutea». Baina ordutik hona hamar urte pasatu dira, eta oraindik jarraitzen du astean hogeita hamar dolar irabazten!

LINDA: Bere buruaren bila dabil, Willy.

WILLY: Hogeita lau urterekin oraindik nor zaren ez jakitea, hori bai zorte txarra!

LINDA: Ixo!

WILLY: Alferrontzia da. Horixe da kontu bakarra, alajainkoa!

LINDA: Willy, arren!

WILLY: Alfer galanta da!

LINDA: Lotan daude. Jan ezazu zerbait. Goazen behera.

WILLY: Zergatik itzuli da etxera? Zergatik itzuli den jakin nahi nuke.

LINDA: Ez dakit. Nik uste dut oraindik galduta dabilela, Willy. Uste dut erabat galduta dagoela.

WILLY: Biff Loman galduta dabil. Munduko herririk zoragarrienean, horrelako itxura oneko gaztea galduta dabil. Hain langile fina izanik... Zeren, gauza bat esan behar da Biffen alde: ez dela batere alferra.

LINDA: Ez horixe, ba!

WILLY (urrikiz eta adorez): Bihar egongo naiz berarekin. Hitz aspertu bat izango dugu biok. Salmenta lan bat eskuratuko diot. Gizon aparta izan daiteke. Jainkoarren! Oroitzen al zara neskak nola zebilzkion atzetik eskolara zihoanean? Neska haietako bati irri egiten zionean, neskaren aurpegia argitu egiten zen... Kanean zebilenean... (Oroitzapenetan murgiltzen da.)

LINDA (gaiz aldatuz): Willy, maitea, amerikar gazta erosi dut gaur. Kremazkoa da, irabiatua alegia.

WILLY: Zer dela eta erosten duzu amerikarra niri suitzarra gustatzen bazait?

LINDA: Zera... Aldatzea gustatuko zitzaizula otu zait—

WILLY: Ez dut aldaketarik nahi! Suitzar gazta nahi dut. Zergatik atsekabetu behar didazue beti?

LINDA (irriño batez): Sorpresa polita izango zela pentsatu dut...

WILLY: Jainkoarren! Zergatik ez duzu leihoren bat irekitzen?

LINDA (egonarri amaigabez): Leiho guztiak irekita daude, maitea.

WILLY: Nola atxilotu nauten hemen! Adreilu eta leihoak; leiho eta adreiluak.

LINDA: Patio ondoko lurra erosi beharko genukeen...

WILLY: Kotxeek betetzen dute kale osoa. Haize freskorik ez dago auzoan. Belarrak ez da hazten. Atzeko patioan ez dago azenario bakar bat landatzerik ere. Oroitzen al zara zumar bikain haietaz? Hortxe zeuden, kanpoan... Biff eta biok zabu bat jarri genuen euren adarretatik zintzilik. Oroitzen al zara?

LINDA: Bai, noski. Hiritik hamaika kilometrotara biziko bagina bezala zen.

WILLY: Eraikitzailea atxilotu beharko lukete, zuhaitzak ebakitzeko. Auzoa suntsitu zuten. (Betiluna.) Gero eta gehiago oroitzen naiz garai haietaz, Linda. Urtaro honetan ezkiak eta liliak loratzen ziren. Eta geroago astaliliak, eta lilipak ere bai... Zer-nolako lurrina egoten zen gela honetan!

LINDA: Beno, azken finean jendeak nonbait bizi behar du.

WILLY: Ez, jende gehiago dago orain.

LINDA: Nik ez dut uste orain jende gehiago dagoenik, nik uste dut—

WILLY: Jende gehiago dago orain! Horixe hondatzen ari da gure herria! Jende-kopurua kontrolatik kanpo dago. Gure arteko lehia

zoratzeko modukoa da! Usaindu apartamentuetatik datorren kiratsa!  
Baina... nola ausartzen dira gazta irabiatzen?

(Willyren azken esaldiarekin batera, Biff eta Happy  
erdi etzanean jarri dira ohean, zain).

LINDA: Goazen behera, tira. Eta zaude lasai.

WILLY (Lindarengana bueltatuz, nahastuta): Ez zara egongo  
nirekin kezkatuta, ezta, maitetxo?

BIFF: Zer gertatzen da?

HAPPY: Entzun!

LINDA: Kezka gehiegitxo dituzu.

WILLY: Nire oinarria eta euskarria zara, Linda.

LINDA: Saia zaitez lasaitzen, laztana. Edozer egiteko gai zara.  
Ikusiko dute denek, bai!

WILLY: Berarekin ez naiz berriro borrokatuko. Texasera itzuli nahi  
badu, utzi joaten.

LINDA: Bere bidea aurkituko du.

WILLY: Bai, horixe. Gizon batzuei asko kostatu zitzaizen  
lehenbiziko urratsa ematea. Thomas Edison-i, esate baterako. Eta  
B.F. Goodrich-i ere bai. Horietako bat gorra zen gainera. (Logelako  
aterantz doa.) Biffen alde, dudan guztia apustu egingo nuke.

LINDA: Adizu, Willy —igandean eguraldi ona egiten badu, kanpora  
joango gara. Kotxearen goialdea zabalduko dugu, eta hamaiketako  
ederra egin.

WILLY: Ez, kotxe berrietan kapota ez da jaisten.

LINDA: Baina zeuk jaitsi duzu gaur.

WILLY: Neuk? Nik ez dut horrelakorik egin. (Isildu egiten da.) Hau  
bai ezustekoa! Ez al da harrigarria— (Izuak jota, mintzatzetik  
gelditzen da, harri eta zur. Xirula-soinua entzuten da, urrun).

LINDA: Zer duzu, laztana?

WILLY: Chevyri buruz pentsatzen ari naiz. (Isilunea) Mila  
bederatzirehun eta hogeita zortzian... Gorri koloreko Chevy hura  
nuenean... (Bat-batean isilik geratu da.) Ez al da barregarria? Zin

egingo nuke gaur Chevvy gdatzen aritu naizela.

LINDA: Beno, horrek ez du axolarik. Zerbaitek gogorraziko zizun.

WILLY: Harrigarria da, benetan. Oroitzen al zara egun haiez? Biffek zer-nolako dirdira ateratzen zion kotxeari? (Pentsakor gelditzen da.)

Aizu! (Lindari.) Egizu lo. Behera noa. (Gelatik ateratzen da.)

HAPPY (Biffi): Ai, ene! Beharbada, kotxea hondatu dik berriro!

LINDA (Willyri deika): Kontuz eskailerekin, laztana! Gazta erdiko apalean dago! (Linda logelara itzuli, ohera hurbildu, Willyren jaka hartu eta logelatik kanpora doa berriro.)

Mutilen gelan argia piztu da. Ikusten ez bazaio ere, Willyren ahotsa entzuten da bakarka hitz eginez, "Larogei mila kilometro", eta barre labur bat. Biff ohetik jaiki, eskaileratik jaisten hasi eta adi-adi gelditu da. Biff bere anaia Happy baino zaharragoa da. Sendoa da, baina azken egunetan ez du oso itxura ona eta bere buruarekiko konfidantza piska bat galdu duela ematen du. Arrakasta txikiagoa izan du, eta bere ametsak Happyrenak baino biziagoak eta zailagoak dira. Happy altua da, gorpuzkera onekoa. Sentsualtasuna berarengan agerian dagoen kolorea bezalako da, edota emakume askori darien lurrinaren antzekoa. Bera ere, bere anaia bezalaxe, noraezean dabil, baina era ezberdin batez, ez baitio bere porrotari sekula aurpegi ematen. Beraz, bere noraeza handiagoa eta zorrotzagoa da, berak alaiagoa dirudien arren.

HAPPY (ohetik jaikiz): Horrela jarraitzen badu, gidatzeko baimena kenduko ziotek. Berataz kezkatuta nagok, Biff, benetan.

BIFF: Ikusmena hondatzen ari zaiok.

HAPPY: Ez, kotxean eraman naik. Primeran ikusten dik, baina ez dik arretarik jartzen. Aurreko astean kotxez joan ginduan hiriraino. Semaforo berdean gelditu eta gorrira aldatzean aurrera segitu zian. (Barre egin du.)

BIFF: Beharbada daltonianoa duk.

HAPPY: Gure aita? Koloreak bereizten ez zegok bera bezalakorik. Hik hori ederki dakik-eta.

BIFF (ohean eserita): Lotara noak.

HAPPY: Aitarekin haserre ez haiz oraindik ibiliko, ezta?

BIFF: Dena konponduta zegok, uste diat.

WILLY (mutilen gela azpian, egongelan): Bai jauna, laurogei mila kilometro —laurogeita bi mila!

BIFF: Erretzen al duk?

HAPPY (zigarro pakete bat ateraz): Zigarrorik nahi?

BIFF (zigarro bat hartuz): Zigarro-usaina nabaritzen ez badut, ezin diat lo egin.

WILLY: Lan bikaina, bai horixe!

HAPPY (hunkituta): Harrigarria, Biff, benetan. Gu berriro hemen lo egiten... Gure betiko oheak dituk! (Ohean zapladatxo batzuk jotzen ditu maitasunez.) Zenbat solas izan genituen bi ohe hauetan etzanda! Gure bizitza osoa.

BIFF: Bai. Amets eta asmo pila.

HAPPY (barre sakon eta gizonezko batez): Hamaika bat neskari gustatuko litzaiokek gela honetan esaten zena jakitea.

(Biek barre ito bat egiten dute.)

BIFF: Oroitzen al haiz Betsi-ez-zekiat-zer pottolo hartaz? Nola demontre zuen izena... Bushwick Etorbideko hark...?

HAPPY (ilea esku batekin orraztuz): Collie bat zuenak?

BIFF: Horixe bera! Hona ekarri nian, oroitzen?

HAPPY: Bai, horixe. Nire lehendabiziko aldia izan zuan, uste diat. Balea bezalakoa zuan! (Barre ia ankerra botatzen dute.) Heuk irakatsi hidan emakumeez dakidan guztia. Ez ahaztu.

BIFF: Apustu egingo nitek gaur ez haizela oroitzen zer herabetia hintzen garai hartan. Batez ere neska-kontuetan.

HAPPY: Eta oraindik orain honelakoxea nauk, Biff.

BIFF: Tira!

HAPPY: Piska bat kontrolatzen diat, besterik ez. Dena den, hain beldurtia ez izatea lortu diat, bai. Hiri, ordea, alderantziz gertatu zaik. Zer gertatu da, Biff? Non dago hire betiko umorea, heure buruarekiko huen konfidantza? (Biffen belauna astintzen du. Biff jaiki eta gelan ibiltzen hasten da, kezkatuta-edo.) Zein da arazoa?

BIFF: Zergatik barre egiten du aitak nitaz behin eta berriro?

HAPPY: Ez dik hitaz barre egiten, bera—

BIFF: Zerbait esaten dudanean, iseka keinua sumatzen zioat aurpegian. Ez zeukat bere ondoan egoterik.

HAPPY: Hiretzat onena nahi dik, besterik ez. Aspalditik hitz egin nahi nian aitari buruz, Biff. Zerbait... gertatzen ari zaiok. Bere... buruari hitz egiten zioak ozenki.

BIFF: Gaur goizean konturatu nauk. Dena den, beti ibiltzen zuan marmarka.

HAPPY: Orain bezala ez, ordea. Txunditzeko modukoa zuan eta Floridara bidali nian, oporretan. Gainera, ba al dakik gauza bat? Gehienetan hitaz hitz egiten dik.

BIFF: Zer dio nitaz?

HAPPY: Ezin izan zioat ulertu.

BIFF: Zer dio nitaz?

HAPPY: Zera, munduan zehar edozein modutan habilela, oraindik ez daukala garbi etorkizuna...

BIFF: Horrez gain, beste zerbaitek kentzen zioak gogoa, Happy.

HAPPY: Zer esan nahi duk?

BIFF: Berdin duk. Ez bota niri erru guztia.

HAPPY: Nire ustez, lanean hasiko bahintz —zera, esan nahi diat... —ba ote duk etorkizunik hemendik kanpo?

BIFF: Esan diat, Hap, nik ez dakidala etorkizuna zer den. Nik ez dakidala —zer desiratu behar den.

HAPPY: Zer esan nahi duk?

BIFF: Beno, lizeoa utzi eta gero, sei edo zazpi urtez saiatu ninduan nire lanaren bizkar bizitzen. Marinel, saltzaile,... mota guztietako ogibideak izan nizkian. Bizimodu benetan mixerablea. Udako goiz beroetan lurrazpiko horietan egotea... edo telefono-deiak egiten... edo salerosketan... Urtean berrogeita hamar aste sufritu eta horren trukean pare bat aste oporretan, desiratzen duan guztia haize agerian egotea besterik ez denean, alkondara erantzita... Eta beti ibili behar duk lagun-hurkoa zanpatzen... Eta hala ere, horrela eraikitzen duk hik heure etorkizuna.

HAPPY: Tira ba. Benetan gustura al hago baserri batean lan egiten? Pozik al hago hemendik kanpo?

BIFF (gero eta urduriago): Hap, gerra baino lehen etxea utzi nuenetik, hogeit hamar lan ezberdin izan dizkiat, eta beti gertatu zaidak gauza bera. Aspalditxotik ohartu nauk horretaz. Esaterako Nebraskan, unai lan egiten nuenean; eta Dakotasen, eta Arizonan, eta orain Texasen. Baserri horretan lanean ari nintzenean... Orain udaberrian gaudek, ezta? Beno bada hamabost moxal ekarri berriak ditizkek. Ez zegok ezer zirikagarriagorik, ezta ederragorik ere, beste behor edo beste moxal bat ikustea baino. Toki horretara udaberria heltzen denean, bat-batean, jainkoarren!, ezertxo ere ez dudala lortu iruditzen zaidak. Zer arraio egiten ari naiz, zaldiekin gora eta zaldiekin behera, asteen hogeita zortzi dolar irabazten? Hogeita hamalau urte dizkiat. Nire etorkizuna konpondu beharra zeukat. Eta orduan korrika etxeratzen nauk. Baina orain hemen nagok, eta ez zekiat zer egin. (Isilunea.) Beti pentsatzen saiatu nauk ez naizela bizitza alferrikatzen ari; baina hona itzultzen naizen bakoitzean, bizitza alferrik galdu besterik ez dudala egin iruditzen zaidak.

HAPPY: Poeta haiz, Biff, benetan. Hi —hi idealista hutsa haiz.

BIFF: Ez, erabat txundituta nagok. Beharbada ezkondu beharko nitek. Beharbada horixe duk nire arazoa. Mutil kozkorra bezalakoa nauk. Ez nagok ezkonduta; ez nagok negoziotan sartuta; mutil kozkorra bezalakoa nauk. Pozik al hago, Hap? Arrakasta handikoa haiz, ezta? Pozik al hago?

HAPPY: Deabru gorriak: ez!

BIFF: Zergatik? Dirua irabazten ari haiz, ezta?

HAPPY (urduri, kementsu): Orain egin dezakedan guztia arduradunaren heriotza itzarotea duk. Gainera, pentsa dezagun dendaren arduraduna izatea lortzen dudala. Adiskide mina izan ezezik, Long Islanden ere badik etxe bikain bat. Bi hilabetez bizi izan zuan han. Gero dena saldu eta orain beste etxe batean sartu duk. Etxe berriaz jabetu bezain laster, ez zegok gustura. Ezin dik daukanaz gozatu. Eta nik bazekiat neuk ere gauza bera egingo nukeela. Ez zekiat zertarako ari naizen lanean. Batzuetan, nire apartamentuan esertzen nauk, bakar-bakarrik. Eta ordaintzen ari naizen errentaz pentsatzen hasten nauk. Eta zorakeria dela iruditzen zaidak. Baina horixe duk nik beti desio izan dudana. Apartamentu bat, kotxea, emakume pila bat. Eta hala ere, arraioa! Bakar-bakarrik nagok.

BIFF (burua berotuta): Entzun, zergatik ez hator nirekin mende-baldera?

HAPPY: Hi eta ni, ezta?

BIFF: Bai, horixe! Agian etxalderen bat eros genezakek. Abereak hazi, gure indarra erabili... Gu bezalako gizon sendoek leku irekian bizi beharko liketek.

HAPPY (lehiaz): Lomandar anaiak, e?

BIFF (gogo beroz): Noski! Konterri osoan ospetsuak izango gintuzkek!

HAPPY (liluratuta): Horixe amesten diat nik ere, Biff. Noizean behin, arropak lantokian bertan erantzi eta salmenta-arduraduna



pikotara bidaltzeko gogo itzela sartzen zaidak. Denda horretan beste inork baino gehiago eskaini nezakek nik. Baina burua makurtu behar, funtsik gabeko putakume horien esanera. Gehiago jasaterik ez zeukat!

BIFF: Esaten diat, gizon: nirekin etortzen bahaiz, hemendik kanpo zoriontsuak izango gaituk.

HAPPY (berotuta): Aizak, Biff, hain jende faltsua inguratzen zaidak, ezen indarrrik gabe geratzen naizen!

BIFF: Anaiatxo: elkartzen bagara, elkarri lagunduko zioagu. Horrela, nortaz fidatu izango diagu-eta.

HAPPY: Hirekin egongo banintz...

BIFF: Hap, arazo bakarra hau duk: ez zidatela irakatsi dirua irabazten. Nik ez zekiat dirua nola irabazi behar den.

HAPPY: Nik ere ez.

BIFF: Bada orduan goazen hemendik!

HAPPY: Bai, baina... zer egingo dugu hemendik kanpo?

BIFF: Begira hire adiskideei. Etxe bikaina eraiki eta gero, bertan bizitzeko gogo-bakerik ez ditek.

HAPPY: Bai, baina dendan sartzen denean, berarentzat dituk begiramendu eta hitz lausengarri guztiak. Dendako ate biragarrietatik sartu denak urtean berrogei mila dolar irabazten dituen gizona duk. Baina nik askoz gehiago balio diat!

BIFF: Bai, baina oraintxe bertan esan duk—

HAPPY: Exekutibo barregarri eta harroputz horiei erakutsiko zieat nor den Hap Loman! Hori egin eta gero, hirekin joango nauk, Biff. Orduan elkarrekin egongo gaituk. Hitzematen diat. Tira, gaur gauean bi neska horiekin aterako gaituk. Ez al dira xarmantak?

BIFF: Bai, noski. Nire bizitzako neskarik xarmantenak dituk. (Hileta-ahotsaz.)

[...]